

Eragiketa Zuzendaritzako Masterra

2012/10/09

Mondragon Unibertsitateko Eragiketa Zuzendaritzako Masterraren diplomak gaur banatu dituzte. Jakinekua denez, metodologia aitzindaria izan da Estatuan. Arloko adituen arabera, eragiketa-bikaintasuna honetan datza: enpresen jardueren bidez, prozesuak eta adierazleak ez ezik, ekonomia- eta finantza-balantzeen emaitzak ere hobetzean. Masterra, 500 ordukoa, Bilboko Merkataritza Ganberan egin dute, 2011ko otsailetik 2012ko ekainera bitartean. Laguntzaileetako bat Asenta Management Consultants izan da. 14 ikasleek diplomak gaur arratsaldean jaso dituzte.

14 ikasleek 10 urtetik gorako lan-esperientzia dute, batez beste, eta gehienak ingeniari izan dira esparruko enpresetakoak. Karguei dagokienez, ekoizpen-zuzendariak, plantakoak, industria-zuzendariak, proiektu-buruak edo logistika arduradunak dira, besteak beste.

Diplomak banatzeko ekitaldia gaur egin da, arratsaldeko 18:00etan, Bilboko Merkataritza Ganberan. Amaieran, Mondragon Unibertsitateko errektore Iosu Zabalak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko zuzendari nagusi Vicente Atxak, Mondragon Korporazioko Automozioko Dibisioko lehendakariorde José Ramón Goikoetxeak eta Bilboko Ganberako idazkari nagusi Juan Carlos Landetak hartu dute parte. José Ramón Goikoetxeak *Enpresen lehiakortasunari* buruzko hitzaldia eman du.

Masterra

Masterraren helburua pertsonengan aldaketak sustatzea izan da, ikuspegi integrala barneratzeko eta gauzak beste era batean egiten ikasteko, parte-hartzaileak antolakundeak eraldatzeko eta enpresa-emaitza bikainak lortzeko gai izan daitezten. Aipatutako helburu guztiak lortzeko, metodologia praktikoa erabili da funtsean, 4 talde-lan eta amaierako proiektu individuala eginez, besteak beste. Profesionalei, trebakuntza ez ezik, enpresetan aplikazio errealek egiteko aukera ere eman zaie, jardunean aritzeko eta, era berean, antolakundearen prozesuak hobetzen ikasteko.

Hizpide dugun masterreko parte-hartzaileek industria-kudeaketari lotutako ikuspegi integrala landu dute, egungo ingurune lehiakorretan oinarrituz, eta erreferentziazko metodologia eta tresna berritzaileetan trebatu dira. Baina, ororen gainera, enpresen behar estrategikoekin bat datorren industria-kudeaketa eredua diseinatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatu dituzte. Horrela, enpresak eraldatu eta emaitzak lortzera bideratzeko gai izango dira.

www.mondragon.edu



2012 Diploma Banaketa